

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Fernando Alzola Plaza

*Ea, Bizkaia
(1937)*

Aurkibidea



Biografia



1937. urtean jaio zen Bedarona auzoko Urtza baserrian. Aita bertan baserrian jaiotakoa zuen eta ama Aulestiko Oñiz baserrikoa. Gaztaro guztia aitite eta amamaren baserria zen Olabarrin igaro zuen. Hiru anaien artean zaharena zen. Ama Lekeitiora joaten zen egunero etxeko esnea saltzera eta aita Ameriketara joandako artzaina izan zen. Sei urtetatik 14 urtera arte Bedaronako eskolara joan zen eta bitartean, eliz-mutil lanak egiten zituen bertako abadeari lagunduz. 12 urte zituela, Eako fabrikara lixiba eramaten zuen kamioian 18 urte izan zituen arte. 21 urterekin Bilbon egin zuen soldadutza eta amaitu zuenean, itsasoarekiko zuen afizioagatik-edo, 25 urterekin, beste bi anaiekin batera barku batean itsasoratu zen. Kanpaina amaitu eta Bedaronara bueltatu zenean, kamioia erosi eta gauzak alde batetik bestera garraiatzen ibili zen enpresa batetik bestera. Gerora autonomia egin zen 45 urterekin istripu garrantzitsua izan zuen arte. Erretiratu aurretik, mandatari bezala ibili zela kontatu zigun.

Zintak

EAA-016

- **Proiektua:** Eako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-10-31
- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

EAA-017

- **Proiektua:** Eako ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-10-31
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Euskaraz besterik ez zekitenak

- **Erref:** EAA-016/003
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:05:53. **Bukatu:** 00:08:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Anekdotak bat kontatzen du, erdaraz moldatzen ez zen Urtzaerdikoako emakumearena. Hiru lagun ditu gogoan, euskaraz besterik ez zekitenak. Fernandok gazteleraz nola ikasi zuen kontatzen du.

2. Eakoek baserritarrak baxuagotzat

- **Erref:** EAA-016/008
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:13:32. **Bukatu:** 00:16:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Bedarokoek bazuten Earako joera baina Natxitukoek gehiago jotzen zuten Ibarrangelura eta Elantxobera. Eakoek baserritarrak baxuagotzat hartzen zituztela esaten du.

3. Lehengo Bedaroa

- **Erref:** EAA-016/009
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:18:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Lehengo Bedaroa: eskola zegoen, hilerria (orain parkea dagoen lekuan) ere bai. Aldapan txirrista egiten zuten eta lokatzaz betetako arrokekin pasatzen zuten astea. Hogeitaka ikasle batzen ziren eskolan.</p>

4. Bedaroko etxe eta eraikuntzak

- **Erref:** EAA-016/012
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:24:31. **Bukatu:** 00:26:26

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Bedaroko etxeak eta eraikinak noiz eginak eta nolakoak ziren kontatzen du.

5. Monagilo lanetan

- **Erref:** EAA-016/014
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:29:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Zortzi urtetik hamabostera bitartean, monagiloa izan zen. Goizeko zortziretako mezan abadeari laguntzen aritzen zen. Igandetan bi meza eta arratsaldetan arrosarioa errezatzen zuen. Dirutxoa jasotzen zuen. Don Damian apaizaren anekdota bat kontatzen du.</p>

6. Arrantzarako zaletasuna

- **Erref:** EAA-016/015
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:29:41. **Bukatu:** 00:31:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk

Laburpena:

Igande arratsaldetan itsasoan bainatzera joaten zen eta hantxe ikasi zuen igerian. Arrantzan egitea asko gustatu izan zaio. Zer eta nola harrapatzen zuten kontatzen du.

7. Kanaberak nola egin

- **Erref:** EAA-016/016
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:31:08. **Bukatu:** 00:33:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Kanabera nola egiten zuten kontatzen du. Sarboak nola harrapatzen zituzten aipatzen du.

8. Lanpernak batzen hildakoak

- **Erref:** EAA-016/017
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:33:36. **Bukatu:** 00:35:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

1956an lanpernak batzen ari ziren hiru mutil galdu ziren. Gorpuak aurkitu zituzten egun batzuk pasatu ostean. Beste mutil bat ere hil zela kontatzen du.

9. Lanpernak batzen

- **Erref:** EAA-016/018
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:35:05. **Bukatu:** 00:37:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Itsasbeherari "ibixe" esaten diote eta itsasgorari "marie". Itsasbehera handia dagoenean hartzen dira lanpernak. Itsasoak gogor jotzen duen lekuan egoten omen dira lanpernak.

10. Fokoekin arrantzan

- **Erref:** EAA-016/019
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:37:09. **Bukatu:** 00:39:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk

Laburpena:

Aita arrantzan aritzen zen. Itziartik Ispasterrera arrantzara etorri eta arrain asko hartzen zutela konturatu ziren. Foko handiei esker lortzen zuten eta zizta eginda hartzen zituzten. Fernandok ere gerora hala egiten zuen.

11. Olagarroak nola harrapatu

- **Erref:** EAA-016/020
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:39:23. **Bukatu:** 00:41:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk

Laburpena:

Olagarrotan ez zen asko ibiltzen. Nola harrapatzen diren kontatzen du.

12. Bere pilota egiten zuen jolaserako

- **Erref:** EAA-016/021
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:41:03. **Bukatu:** 00:43:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Bere pilota egiten zuen jolaserako. Apurtutako hauspoaren larruarekin egiten zituen. Inoiz untxiaren larruarekin ere probatu zuen baina ez zuen lortu. Nola egiten zituen kontatzen du. Palak ere egiten zituzten tarteka, jolaserako. Neskek ere egiten zuten pilotan.

13. Ameriketara joateko ilusioa

- **Erref:** EAA-016/024
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:47:29. **Bukatu:** 00:51:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Eskola bukatu eta Ameriketarako ilusioa zeukan baina ez zen joan. Basoan hasi zen lanean lehenengo, itsasoan gero eta kamiailari azkenean. Baserrietan morroi ere ibili zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com